

2025eko ekaina

TRANSIZIO EKOSOZIALERA KO

industria politika

LAB¹
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

Aurkibidea

0. SAR-HITZA	5
1. EGOERAREN AZTERKETA	7
1.1. IRABAZI PRIBATUEN NEURRIKO POLITIKA PUBLIKOAK	7
1.2. KAPITAL PRIBATUA, NEURRIRA EGOTEKO GAI EZ DENA	8
1.3. GUTXIEGI, BERANDUEGI, BIDEGABEEGIA	9
1.4. TRANTSIZIO EKOSOZIALERAKO INDUSTRIA EREDU BAT	9
1.5. EUSKAL HERRIKO INDUSTRIA MILITARRAREN BIHURKETARI AURRE EGITEA	10
2. TRANTSIZIO EKOSOZIALERAKO INDUSTRIA POLITIKAKO PROPOSAMENAK	13
2.1. INDUSTRIA TRANTSIZIOA PLANIFIKATZEA	14
2.2. JABETZA PUBLIKOA ETA BALDINTZAZKOTASUNA	14
2.3. DESKARBONIZAZIO PLANEI BURUZKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA	15
2.4. INBERTSIO PRIBATUAREN KONTROLA LEHIATZEA	15
2.5. LANALDIAREN MURRIZKETA ETA ENPLEGU DUINA	16
2.6. TRANTSIZIO EKOSOZIAL JUSTUA: BANATU, BIRMOLDATU ETA BIRKUALIFIKATU	16
2.7. ENPLEGUA DESLOKALIZATU ETA SUNTSITZEAREN AURKA	17

0. SAR-HITZA

70eko eta 80ko hamarkadetan, industria birmoldaketak, oro har, industria-utzikeria prozesu erabatekoa izan ziren. Zehazkiago, 1973 eta 1985 urteen artean, Euskal Herriko industria sektoreak 171.000 enplegu garbi galdu zituen (194.000 galdu ziren guztira), eta ordutik aurrera berreskuratzen hasi arren, bestelako baldintzekin izan zen. Halere, 1986^an, oraindik ere, 232.680 pertsona langabezian zeuden, hau da, biztanleri aktiboaren % 23'1.

80ko hamarkadako gaizki deituriko industria birmoldaketa gobernuen eta patronalen artean egindako iruzurra izan zen, enpresen oniritziarekin milaka langile kaleratzeko funts publikoen kopuru handia erabili zen. Birmoldaketa baino gehiago, berregituraketa izan zen, Euskal Herriko ehun industrialaren desegitea. Berrindustrializazio hura etorkizuneko promesa faltsuekin makillatu zen, inolako zehaztasunik gabe. Orduko promesa haiek elikagai gisa erabili ziren, ahalik eta kostu txikienarekin lanpostuak suntsitzeko erraztasun gehienak emanez.

45 urte geroago, krisi ekosozialak eta merkataritza-gerrak behartuta, kapitala eta patronalak buru dituzten prozesuetan murgilduta gaude berriro. Eraldaketa prozesu urriegi, desordenatu eta bidegabe horren aurrean, ehun industrialaren eraldaketa sakon baten planifikazio ekosoziala behar dugu. Industriaren sektore kutsatzaileetan birkonbertsio, deskarbonizazio eta murrizketa prozesuak bultzatu behar ditugu. Gaur egun, gobernuek lehengo errezeta berberak proposatzen dizkigute, eta emaitza ez da desberdina izango.

Egoki planifikatuz gero eta langile klaseak gidatzen badu, prozesu baliagarria izan daiteke lanpostu berriak sortzeko, lanaldia-
ren murrizketaren bidez lana banatu eta zerbitzu publikoen hedapenaren bidez bizi baldintzak hobetu. Aldiz, multinazionalen, inbertsio-funtsen eta etekinak biderkatzea beste asmorik ez duten enpresa pribatuen esku uzten bada, industrian enplegu galera, prekarietate eta Euskal Herriko ehun industrialaren desegitearen sinonimo izango da.

Testuinguru berri honetan, trantsizio ekosozialaren aurrerapena termino ekosozialistetan bultzatzeko eta, aldi berean, langile klasearen lan baldintzak defendatzeko, dokumentu honetan definitzen dugu trantsizio ekosozialerako industria-politikari buruzko LABen proposamena.

1. EGOERAREN AZTERKETA

Krisi ekologikoaren larritasunak jada ez du ñabardurarik onartzen: hondamendi klimatiko eta ekologiko atzeraezin baten atarian gaude. Trantsizio ekologikoa goitik behera egiteko proposamenaren porrota bizitzen ari gara: hiru hamarkada baino gehiagoko nazioarteko akordio eta goi bileren ondoren, munduko CO2 isuriak etengabe handitu dira. Izan ere, industria aroko isurketen erdia baino gehiago 1990 urtetik gaur arte gertatu da.

Industriak funtsezko lekua du premiaz ekin behar diogun ekoizpen eraldaketetan. Industriaren sektoreak EAEko eta Nafarroako emisioen %30-32 eta energia kontsumoaren %34-36 hartzen du. Gainera, ekoizpena oso lotuta dago eragin ekologiko handia duten sektoreekin, hala nola, garraioarekin eta eraikuntzarekin. Horren ondorioz, trantsizio ekosozial orok prozesu industrialen, horien energia iturrien eta baliabide naturalen berrantolaketa behar du.

Aldi berean, industriaren sektoreak zentralitate handia du ekonomiari eta enpleguari dagokienez Hego Euskal Herrian. 280.000 langile baino gehiago ditu, eta gainerako sektore ekonomikoetan baino soldata handiagoak. Argazki finko hori ibilbide luzeko joeren barruan ikusi behar da. 1970eko hamarkadaz geroztik, desindustrializazioak eta zerbitzuen sektorerako desplazamenduak eskulaneko jarduera intentsiboen mendeko ekonomia baterantz eraman dute, non enpresek beren etekinak handitzen dituzten soldata baxuagoen edo lan baldintza prekarioagoen bidez. Bestalde, 2008ko krisi ekonomikoaz geroztik, ikusten dugu EAEn 39.000 enplegu baino gehiago suntsitu direla industrian, eta Nafarroan, berriz, pixka bat handitu dela industriako enplegua.

Industriaren zentraltasuna ekonomia osoa arrastatzeko duen gaitasun sendoari zor zaio. Sektorea funtsezkoa da kanpo merkataritzarako zein hazkunderako, eta bertan sortzen dira produktibitatea handitzea ahalbidetzen duten berrikuntza teknologikoak eta antolakuntzakoak. Horregatik, industria jarduera metaketa kapitalistaren prozesuaren muinean dago. Aldi berean, sektore zatitua eta nazioartekotua da, eta lehia hornidura katean zehar lekualdatzen da, lan baldintzak doitzeko presioa eginez. Une honetan, Europako industria, batetik, merkatu saturatueta jardun behar du eta, bestetik, Txinatik lehia gogorra bizi du. Egoera honetan, gehiegizko produkzio gaitasunaren ondorioz, kapitalak errentagarri izateko zailtasunak ditu. Hazkunde eta produktibitate erritmo baxuak lan baldintzak okertuz eta errentagarritasun pribatua berreskuratzera bideratutako esku hartze publiko gero eta handiagoarekin eusten dira nagusiki.

Azkenik, oso kontuan izan behar ditugu industriaren zentraltasun ekonomikoaren, laboralaren eta produktiboaren ezkutuko aurpegiak. Esportazioetan, hazkundera, produktibitatean eta lehiakortasunean duen garrantzia ez litzateke posible izango ustiapen-, jabetze- eta arpilatze-zor handiak izan ezean. Zor ekologiko, kolonial eta patriarkalaz ari gara: ingurumenari, Hego globalari eta bizitza sostengatzen duten gorputzei buruzkoa. Emakumeak* baztertuta, gutxietsita eta azpiordezkatuta daude industrian, soldatapeko lanaren sexu-banaketaren ondorioz. Industriako lanak erabat maskulinizatuta daude, balio handiagoa ematen zaie, eta aitortza eta soldata hobeak ere bai. Berriz, gehienbat emakumeek* lan egiten duten industria-sektoreetan, haien lan-baldintzak eta aitortza nabarmen okerragoak dira.

Errealitate geroz eta konplexuago honetan, kontrabotere sindikalismo ekosozialistak erabakitasunez erantzun behar dio egoerari. Hiru ardatzen baitan jardutea funtsezkoa izango da datozen hamarkadetan: trantsizio ekosoziala, produkzio eraldaketa eta industria enplegua. Tamalez, politika publikoetan eta plan korporatiboetan aurkitzen duguna ez dator bat premia handiz behar dugunarekin.

1.1. IRABAZI PRIBATUEN NEURRIKO POLITIKA PUBLIKOAK

Hazkunde ekonomikoa, lehiaren hobekuntza eta ingurumenaren zaintza uztartzeko azken hiru hamarkadetako merkatu mekanismoek porrot egin dute. Ez dute hobekuntza esanguratsurik lortu ekonomiari, jendarteari eta ingurumenari dagokienez.

Industria deskarbonizatzeko politika publikoak makilaren eta azenarioaren logikan oinarritu dira. Alde batetik, Europar Batasuneko isurketa eskubideen salerosketa erregimenak (RCDE UE delakoak) isurketa kuotak banatzen ditu gehien kutsatzen duten instalazioen artean, eta horiek merkatura joan behar dute hartuta ez dauden karbono tonak erostera.

Horrela, gehien kutsatzen duten prozesu industrialen garestitzearekin karbono gutxiago isurtzen duten teknologietarantz egindako inbertsioa sustatzea bilatzen da. Sistema horrek porrot egin du, enpresa kutsatzaile handiek hobariak lortu dituzte eta isurketa eskubideekiko espekulazioa bultzatu da. Hego Euskal Herrian, RCDE UE salerosketa erregimenak Nafarroako 27 instalaziori eta EAeko 49 instalaziori eragiten die, eta horiek emisioen %40 baino gehiago hartzen dute. Sektore hauek nabarmentzen dira: elektrizitatea sortzea, petrolioaren finitzea, zementua eta karea, siderurgia, beira, zeramika eta papera.

Bestalde, sistema horrek enpresa batzuen onurak eta lehia murriztea ekar dezakeenez, gobernuak bi bidetatik konpentsatzen saiatzen dira: lehenik eta behin, zuzeneko laguntza konpentsatzaileen bidez, hau da, CO₂aren zeharkako kostuengatik, kontsumitzaile elektointentsiboengatik, edo gas naturalaren prezioen igoeragatik. Bigarrenik, enpresa multinazional handiei milioi askotako dirulaguntzak ematen dizkieten industria politika berdeko programen bidez. Hori da gaur egun Ibilgailu Elektriko eta Konektatuaren PERTEarekin edo Deskarbonizazio Industrialeko PERTEarekin ikusten ari garena.

Programa horien helburua ustez ekoizpen eraldaketa dakarten proiektuetan inbertsio pribatua sustatzea da, gehienetan enplegua mantentzeko inolako baldintzarik gabe. Aldi berean, eta modu transbertsealean, sinplifikazio administratibo eta desaratze batean sakontzen da, botere korporatiboak are gehiago handitzen duena. Laburbilduz: enpresa pribatuentzako diru publiko gehiago eta arau gutxiago. Egun indarrean dagoen esku hartze publikoa dirulaguntzak, beherapen fiskalak, eskariaren estimuluak edo finantzaketa eskuratzeko pizgarriak aplikatzera mugatzen da. Helburua da trantsizio ekologiko-rako lehentasunezko zatia jotzen diren jarduerak nitxoetan inbertsio pribatuaren arriskuak murriztea eta gutxieneko errentagarritasun mailak bermatzea. Gainera, diru publikoaren injezio hori enpresa multinazional handietan kontzentratzen da, haien lehiakortasun, esportazio eta nazioartekotze estrategiak indartuz. Bitartean, industriako enplegu gehiena enpresa txiki eta ertainetan kokatzen da, eta horiek lurraldeko behar sozialei erantzuten ez dieten balio-kate globalen mende daude.

Orain arteko emaitzek frogatzen dute merkatu mekanismoen eta enpresa pribatuei emandako diru publikoaren arteko konbinazioak ez direla eraginkorrik produkzio eraldaketa beharrezko eskala eta abiaduran egiteko. Azken urteotan ikusten ari gara gobernuak milioika diru publiko jaurtitzen dietela enpresei, enpresak limurtzeko, beren lurraldean inbertsioak egin ditzaten; multinazionalak, berriz, dirulaguntzen ehibitari bihurtzen dira. Eta hori gutxi balitz, estrategia horretan Europar Batasunak aukera gutxi ditu laguntzeko. Europako industriak lehiakortasuna galtzen du merkatu globalean Txinaren gaitasun industrialaren aurrean, eta penalizatuta dago, Estatu Batuek muga-zergekin abiatutako ofentsibaren ondorioz eta han bertan instalatzen diren enpresei laguntza publiko handiagoak eskaintzeko gai direlako.

Norabide horretan sakontzen jarraitzeak ziurtatzen duen bakarra da irabazi ezin diren merkataritza gerrak hastea, gero eta diru publiko gehiago enpresa pribatuetara bideratzea eta botere korporatiboaren zigorgabetasuna araurik gabe eta baldintza gutxiagorekin handitzea. Ikusten ari gara muga zerga berriek eta bira protekzionistak esportazioekiko mendekotasun handia duen industria bati eragiten dietela bereziki. Eskualde blokeen arteko merkataritza gerraren ondorioak langile klaseak ordainduko ditu, enpresek ezartzen dituzten lan baldintzen, itxieren eta kaleratzeen gaineko doikuntzak jasango baititu.

Egoera nahasi horri jarrera erabat ukatzaileak gehitu behar zaizkio. Gobernu batzuek aurre egiten diote beren industriaren lehiakortasun galerari munduko merkatuan, erregai fosilen erabilera intentsiboa bultzatuz, ekosistemen espoliazioa areagotuz eta emisioak murrizteko konpromisoak atzeratuz. Horrek irudipen bat sortzen du: industria eta enplegua defendatzen dituztela diote, eta, aldi berean, bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren baldintzak suntsitzen dituzte.

1.2. KAPITAL PRIBATUAK EZ DU ERRONKARI HELTZEKO GAITASUN ETA BORONDATERIK

Kapitalarentzat premisa argi bat dago: trantsizioak, ekologikoa baino lehen, errentagarria izan behar du. Horrek gainerako guztia baldintzatzen du eta bi ondorio dakartza: Alde batetik, irabazi itxaropen nahiko erakargarria duten ekoizpen sektoreetan soilik inbertitzen da. Horrek ez du zertan bat etorri gizarte eta lurralde premietarako lehentasunezkoenak diren sektoreekin, eta bertan behera utzi behar dira garrantzi handiko baina errentagarritasun txikiagoko esparruak. Bestalde, ekoizpen inbertsioarekin batera, kasu askotan, lan baldintzak erasotu egiten dira, enpleguak okertu, prekarizatu edota suntsitu. Horrela, produkzio eraldaketaren faktura langile klaseari pasatzen diote, bizi baldintzak kaltetuz.

Berehalako onurak eta akziodunei dibidenduak banatzea bilatzen da enpresek bultzatutako proiektuetan, eta beraz, ez dute benetako jendarte eta klima premiei buruzko inolako plangintzarik. Prozesu hori behin eta berriz errepikatzen da. Kapital pribatua ez da gai beraiek definitutako ordezkapen teknologikoan oinarritutako deskarbonizazio eredia garatzeko. Automobilgintzaren sektorean ikusten ari gara: fabrikatzaileak tamaina eta kostu handiagoko autoak fabrikatzera bideratzen dira, eta errentagarritasun handiagoa ateratzen dute horietatik. Salmenten beherakadak eta Txinako fabrikatzaileekiko lehiaren gorakadak markatutako testuinguruan, Europako automobilgintzak elektrifikazio proiektuak geldiarazten ditu eta presioa egiten du barne errekuntzako ibilgailuen salmentaren mugak atzeratzeko. Zementu fabriken sektorean, deskarbonizazioaren izenean kaleratze kolektiboak justifikatzen dira, eta prozesuen modernizazioan automatizazioa sartzen da, lan kostuak murrizteko. Siderurgiaren sektorean ikusten denez, milioi askoko laguntza publikoak izan arren, karbono gutxiko altzairua ekoizteko aldaketa teknologikorik ez da egiten, egungo ekoizpen prozesuarekiko onurak murriztuko liratekeelako. Sektore petrokimikoan, marketing sailek erregai sintetikoak behin betiko salbazio klimatiko gisa aurkezten dituzte eta beren negozioaren gehiengoa petrolioaren fintzearekin aberasten jarraitzen dute.

Industriaren deskarbonizazioak inbertsio produktibo masiboak behar ditu, baina merkatuak, lehiak eta mozkinen aurreikuspenek trantsizioa geldiarazten dute. Multinazionalen eta enpresa pribatuen eskuetan, trantsizio energetikoa jaurtitzeko arma gisa erabiltzen da, gobernuak diru publiko gehiago eskatzeko eta lan baldintzei, kaleratze kolektiboari, deslokalizazioari eta itxierari buruzko murrizketak justifikatzeko. Enpresa handiek epe luzerako deskarbonizazio plan korporatibo batzuk definitzen dituzte, eta ez dago plan horien betetze mailaren jarraipenik, baina enpleguan eragina duten epe laburreko erabakiak hartzen dituzte. Kapitalak erabateko kontrola du inbertsio produktiboari buruzko erabakien gainean, eta horrek ez du enpleguari buruzko inolako bermerik betetzen, ezta hain premiaz behar ditugun eraldaketak lortzen ere.

Aldi berean, enpresa multinazional handiek gobernuak presionatzen dituzte emisioak murrizteko helburuak jaitsi eta atzeratu ditzaten. Trantsizio energetikoak irabazien gainean eragiten badu, ez dute arazorik alde batera utzi eta irabazi gehien metatzen dituzten negozio kutsatzaileenetan zentratzeko. Oraindik ere badago ofentsiba negazionista baten arriskua, jokoan interes gehien dituzten enpresa industrialek gidatua.

1.3. GUTXIEGI, BERANDUEGI, BIDEGABEEGIA

Elite politiko eta ekonomikoek gidatutako eraldaketaren emaitza honela laburbildu dezakegu: gutxiegi, beranduegi, bidegabeezia. Trantsizioa gauzatu dadin kapitalaren mozkinak handitzen jarraitzeko baldintza zentzugabezia eta mugatzailezia da. Ezarritako eredia hori den bitartean, emisioen murrizketa atzeratuko da eta enpleguaren prekarizazioa areagotuko da.

Historia ez da errepikatzen, baina sarri soinu bera izan ohi du. Euskal Herrian, eragin soziolaboral mingarriegia izan zuen bir-moldaketa industriala gogoan, datorren hamarkadan iraganeko akats berdinak errepikatzea ekitatea dagokigu. Esku artean duguna garrantzitsuegia da, kapitalak gidatutako eraldaketa –desberdintasunak eta ondoeza areagotzea ekar lezakeena— soil batera mugatzeko.

Trantsizioa industrialak funtsezko galderei erantzuteko gai izan behar du: zer ekoiztu, nola, norentzat eta nork erabakitzen duen. Herri ikuspegia izan behar du gurean ezinbestean, Euskal Herrian eraiki nahi dugun eredia bera jokoan baitago. Bir-planteamendu hori ikuspegi internazionalista batetik egin behar da: Euskal Herriko trantsizioa ekosozialak ezin du Hego globalerako herrialdeetan baliabide naturalen espolioa sakontzen jarraitu. Beraz, ekoizpen eta kontsumo maila, hornidura kateak eta merkataritza akordioak ebaluatu behar dira, askotan logika neokolonialak errepikatzen baitituzte, eta horretarako, gure lurraldeak eta bertako biztanleek behar duten kontsumo eta ekoizpen industriaren maila ebaluatu behar da. Norabide horretan, sektore batzuk birlokalizatu behar dira, eta beste batzuen jardura murriztu. Ezinbestekoa da eraldaketa produktiboak planifikatzea eta horien eraginpean egongo diren milaka langileei erantzun bat ematea. Hori lortuko bada, burujabetzan eta demokrazia ekonomikoan funtsezko aurrerapenak egin behar dira.

1.4. TRANTSIZIO EKOSOZIALERAKO INDUSTRIA EREDU BAT

Eraldaketa ekosozial justuarekin bat datorren eredu industrial batek emisioak, energia kontsumoa eta materialen erabilera

murritzuko dituen berrantolaketa produktiboa eskatzen du. Berrantolaketa hori gure lurraldearen behar sozial eta ekologikoetatik abiatuta egin behar da. Lehengaien eta erregai fosilen inportazioarekiko mendekotasuna murriztuz egin behar da. Lehentasuna eman behar zaio materialen zikloa ixteari, baliabide naturalen erauzketa murriztuz.

Eskematikoki, behar ditugun lau eraldaketa industrialaren zertzeladak marraztu ditzakegu eta ariketa baliatu, ziurgabetasun aroan ortzimuga zehazteko. Proposatutako ardatz nagusi hauekin batera aldaketa sozioekonomiko zabalagoa egin beharko litzateke, eraginak nozituko dituzten langile guztiei enplegu eskubidea bermatu beharko litzaieke.

Aipatutako ardatzetan lehena da produkzio sektore berrien garapena. Hainbat sektorek, hala nola, trantsizio energetikorako teknologien fabrikazioa, eraikinen birgaitze energetikoa, hondakinen kudeaketa eta lehengaien berreskurapena, funtsezko zeregina betetzen dute trantsizio energetikoa posible egiteko, beste sektore batzuen inpaktu ekologikoa murrizteko eta materialen zikloak ixteko. Datozen urteetan jarduera handitu behar dute, bai ekoizpen gaitasuna, bai lanpostuak ere. Igoera horrek bat etorri behar du lurralde premiekin, eta Hego globaleko herrialdeen espolioan sakonduko ez duen baliabide naturalen hornidura bilatu beharko du. Noski, helburu hori lortzeko, funtsezkoa izango da energiaren eta materialen kontsumoaren egiturazko murrizketarantz aurrera egitea.

Bigarren ardatza: produkzio prozesuaren eraldaketa. Siderurgia, zementu fabrikak, petrokimika, industria kimikoa, paper fabrikak, beira eta zeramika sektoreek energia kontsumo handia eta ekoizpen prozesuari lotutako emisio handiak dituzte. Aldi berean, ekonomiako gainerako sektoreetan beharrezkoak diren lehengaiak hornitzen dituzten sektoreak dira. Inpaktua murrizteak energia iturriak ordezkatzetik harago joatea eskatzen du, eta makineria aldatzea oso garestia da. Horrek eskatzen du ebaluatzea zer jarduera maila mantendu behar den sektore horietan lurralde beharrei erantzuteko: zenbat altzairu, zementu, gasolina eta beste lehengai behar dituen Euskal Herriak. Eskari hori beste sektore batzuen jarduerarekin lotuta dago, hala nola, eraikinen eta azpiegituren eraikuntzarekin edo automobilen eta makinen fabrikazioarekin. Beraz, energia kontsumo eta emisio handiko sektore horiek beren ekoizpen prozesua eraldatu beharko lukete, eta, aldi berean, beren jarduera murriztu.

Hirugarrenik, produktuaren eraldaketa. Automobilgintza, aeronautika edo eraikuntza bezalako sektoreetan, inpaktu ekologikoa eta soziala ez dago ekoizpen prozesuan, baizik eta bizitza baliagarrian fabrikatutako produktuen erabilera. Kasu horietan, zalantzan jarri behar dira egungo ekoizpen maila eta horrekin lotutako mendekotasun sozialak. Irtenbidea ez da errekontzako ibilgailu pribatuen fabrikaziotik ibilgailu pribatu elektrikoetara igarotzea. Mugikortasun eredia eraldatzea, ibilgailu pribatuekiko mendekotasuna murriztea eta garraio publikoko ibilgailuen fabrikazioa areagotzea da helburua. Berriz ere, kasu askotan horrek sektore horietako batzuen ekoizpen ahalmena murriztea eragingo du.

Laugarrenik, produkzio sektore batzuk desagertarazteko bidea egitea. Armagintzaz eta erregai fosilak erauzten eta fintzen dituen industriaz ari gara bereziki. Sektore horiek beren egungo ekoizpena alde batera utzi behar dute, bateraezina delako trantsizio ekosozial batekin. Industria horien ekoizpen ahalmena sozialki erabilgarriak eta ekologikoki beharrezkoak diren beste produktu batzuk fabrikatzeko erabil daiteke eta norabide horietara bideratu beharko lirateke ahaleginak.

Aldi berean, trantsizio industrialak egiturazko aldaketak ekarri behar ditu energia horniduraren eredian, azpiegituretan, hirigintzan, mugikortasunean, nazioarteko merkataritzan eta hondakinen kudeaketan. Horrekin batera, bizitza mantentzeko funtsezko lanen pribatizazioarekin eta prekarizazioarekin amaitu behar dugu, zaintza sistema publiko-komunitario baterantz aurrera eginez. Konbinazio horrek emisioak, energia eta materialak murriztea eta langileen bizi baldintzak hobetzea ahalbidetuko du. Hala ere, merkatu kapitalistaren logikak norabide horretatik urruntzen gaitu. Horregatik, sindikatuen zeregina da egungo lan gatazkak bestelako etorkizun bat posible egingo duen eraldaketarekin lotzea.

1.5. EUSKAL HERRIKO INDUSTRIA MILITARRAREN BIHURKETARI AURRE EGITEA

Garrantzi handia du Euskal Herriko industria militarren etorkizunari buruzko premiazko elkarrizketa ausardiaz onartzeak. Euskal industriaren historian, armagintzara bideratutako fabriken presentzia etengabea izan da, eta haien jarduera ekonomikoa gerra eta gatazkekin lotu da. Lotura hori apurtzea gero eta premiazkoagoa da, eta etenak Euskal Herriko industria sarea berrantolatuko duen edozein trantsizio ekosozialeko proiekturen parte izan behar du.

Hala ere, badirudi gaur egungo joerak kontrako norabidean doazela. Munduko gastu militarrek hazkunde nabarmena izan du azken bederatzirteetan, uneko gerrekin eta tentsio geopolitikoaren gorakadarekin lotuta. NATO osatzen duten herrialdeek munduko gastu militarren %55 dira, eta BPGren %2ra iritsi arte gerra aurrekontuak handitzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute. Espainiako Estatuak gastu militar ofiziala %60 baino gehiago handitu du azken bost urteetan, eta Gobernuak berretsi egin du datozen urteetan handitzen jarraitzeko erabakia.

Azken hamarkadan, Europar Batasunak aurrerapauso handiak eman ditu Europako militarizaziorantz, lobby armamentistikoaren presioei amore emanez. Horren ondorioz, gero eta laguntza finantzario eta politikoa handiagoa eman zaio industria militarri. 2024^an, Europako Defentsa Estrategia Industrialak onartu zen. Estrategia horren bidez, EBren aurrekontutik 1.500 milioi euro mobilizatu nahi dira 2025-2027 aldian, eta laguntza ekonomikoa eskaintzen zaie defentsa industriei, ekoizpen ahalmena handitu dezaten. Horrekin batera, industria militarren finantzaketa egokitu da Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) bidez, eta lehentasun estrategikoa gisa ezarri da. 2025ean, Europako Batzordeak ReArm Europe Plana onartu du industria militarren gastua masiboki handitzeko, 800.000 milioi euro mobilizatzeko asmoz. Gastu publiko masibo horren 650.000 milioi euro estatu kideek beren gain hartzea espero da, eta, horretarako, gastu militarra defizit fiskalaren mugatik kanpo utzi da. Horrekin batera, hainbat adierazpen egin zituzten agintari politikoek, Europako gerraren arriskuaz eta industria militarra indartzeko premiaz ohartarazteko.

Eszenatoki horrek zuzeneko itzulpena du Euskal Herriko ehun produktiboan. Esku artean datu argirik izatea ia ezinezkoa den arren, azterketek erakusten dute Euskal Herrian industria militarrekin lotutako enpresen kopuruak eta azken urteetako fakturazioak gora egin dutela nabarmen. 2023^an, ITP Aero eta Sener erakundeek sektore militarri lotutako urteko diru-sarrerak %25-34 handitu zituztela adierazi zuten. Aipatutako enpresa handiek osatzen dute enpresen zerrenda, baina 200 enpresa baino gehiagok, ikerketa zentroek eta industria militarri hainbat mailatan lotutako finantza erakundeek osatzen dute.

Kontuan izan behar dugu erakunde publikoek oso lotura estua dutela industria militarreko enpresa horiekin. Kasu batzuetan, zuzenean, hala nola, Finantzen Euskal Institutuaren Finkatuz funtsaren bidez ITPren akziodunen %6ko partaidetzarekin. Beste kasu batzuetan, TECNALIA bezalako ikerketa zentroen finantzaketa publikoaren bidez, arlo militarreko hainbat proiektutan inplikaturik. Eta neurri handiagoan Espainiako Gobernuak Defentsa Ministerioaren material militarra erosteko kontratu opakuen bidez. Eusko Jaurlaritzak berriki egindako adierazpenek euskal industriak armagintza negozioan parte hartzeari babesa ematen diote, datozen urteetan espero den garapen handia aprobetxatuz.

Trantsizio ekosozialerako gure industria politikaren proposamenak joera horiei aurre egin behar die eta kontrako norabidean egin behar du aurrera. Euskal Herriko armagintzak desagertzera jo behar du, eta bere ekoizpen ahalmena bideratu sozialki baliagarriak eta ekologikoki beharrezkoak diren beste produktu batzuk fabrikatzera. Izan ere, aspaldi da Euskal Herriko armagintza industriak giltza ingelesak, bizikletak, josteko makinak edo metalezko altzariak bezalako produktuak egiteari ekin ziola. Nazioartean ere gatazka sindikalen historia bat dago, fabrikazio militarretik mediku ekipoetara garraio ibilgailuetara edo energia aurrezteko sistemetara pasatzea eskatu dutenak.

Bide horrek garrantzi berezia du bi arrazoiengatik: batetik, gaur egun industria militarrekin lotura duten enpresetako langileen defentsa ziurtatzeko. Gure proposamen sindikalak langile horiek eraldaketaren protagonista izan behar dutela defendatzen du. Bestalde, erakunde publikoaren baliabideak gerra tentsioak elikatzea bideratu beharrean, gure lurraldearen eta bertan bizi garenen beharretan oinarritutako trantsizio ekosozialera bideratuko direla ziurtatzeko. Inbertsio asko behar dira gure eredu sozioekonomikoa eraldatzeko, eta beraz, trantsizioan lehentasuna duten sektoreetara bideratzeko borrokatu behar dugu.

2. TRANTSIZIO EKOSOZIALERAKO INDUSTRIA POLITIKAKO PROPOSAMENAK

Lurraldean industria-oinarria mantentzearen aldeko apustua egiten dugu. Euskal Herriaren behar sozial eta ekologikoei erantzungo dien industria bat nahi dugu, errotuagoa, multinazionaletik eta inbertsio-funtsekiko mendekotasun txikiagokoa, teknologikoki aurreratua eta lan baldintza duinen eta diskriminaziorik gabekoen aldeko apustu garbia duena. Horretarako, industria parametro ekosozialetan birmoldatu behar da.

Gure egunerokotasunean dauden zerbitzuak, teknologiak eta produktuak fabrikatzeko oinarri industrialak mantentzearen alde egiten dugu LABetik. Era berean, produktu eta teknologia jakin batzuen mendeko egiten gaituen eredu ekonomikoa eraldatzeko beharra defendatzen dugu, energiaren eta materialen erabilera jaitziera justu eta planifikatu baten alde eginez. Eta, hain zuzen ere, bi helburuak lortzeko, murrizketa eta eraldaketa, industrian gaur egun dauden gatazkak eta eraldaketak lehiatu behar ditugu.

Gaur egun, industriaren eraispenak ez dakar inpaktu ekologikoa murriztea, ezta sistema sozioekonomikoa eraldatzea ere, produktuen inportazioa handitzea, produktuen fabrikazioaren inpaktua beste herrialde batzuetara lekualdatzea eta euskal langileen bizi baldintzak prekarizatzea, baizik. Horregatik, Euskal Herriko industriaren berrantolaketa bultzatzea, planifikatzea eta lehiatzea sindikalismo soziopolitikoaren zeregina dela onartzen dugu. Eta bide horretan, tresna sindikal, sozial eta instituzional guztiak erabili behar dira, eta, era berean, aldaketa horiei guztiei buruz demokratikoki erabakitzeko subiranotasuna eta gaitasuna handitu behar ditugu.

Halere, ezin diogu gure buruari tranparik egin: kapitalismo patriarkal, kolonial eta arrazistapean ez da bidezko trantsizio ekosozialik egingo. Kapitalismoak lanaren esplotazioaren eta naturaren (bizitzaren) espoliazioaren bidez etekinak handitu behar ditu. Egiturazko botere ekonomikoa da bidegabekeriak sortzen dituenak, behar bezain errentagarria izatea lortzen ez duen edozein jardura lehiaren bidez diziplinatzen du, bizitzaren eremu gero eta gehiago merkantilizatuz, nahiz lurralde eta gorputz gehigo desjabetuz. Sistema kapitalista heteropatriarkal, arrazista eta biozida gainditzeko bidean trantsizio ekosozialista, feminista eta antirrazistan oinarritutako programa eta proposamenak borrokatu behar ditugu.

LABen programaren oinarria argia da: bizitza kapitalaren gainetik jarri behar da. Horrek eskatzen du sektore estrategikoen kontrol eta erregulazio publikoa, ekonomiaren plangintza demokratikoa eta eguneroko bizitzako funtsezko eremuen desmerkantilizazioa (etxebizitza, garraioa eta oinarritzko hornidurak), besteak beste. Azken batean, sistema sozioekonomikoaren erabateko eraldaketa planifikatu nahi dugu, behar ekologikoei eta sozialei gidatua, eta ez egungo sistemak, zeinak gutxi batzuen onura pribatuak babesteko gehiengoa esplotatzen duen. Ortzimuga horretara iristeko gaurko borroka zehatzetatik abiatu behar dugu, klase boterea indartu eta egungo ordena haustea ekarriko duen norabide politikoa elikatu. LABen dagokigun posiziotik eta dagozkigun zereginak betetzeko borondatearekin heltzen diogu erronkari, eraldaketa ekosozialista ortzimugan hartuta.

Abiapuntu horretatik egiten ditugu industria politikari buruzko gogoetak. Ez dugu uste sistema kapitalistan, bizi ditugun injustiziak konponduko dituen industria politika egiteko modurik dagoenik. Uste dugu esparru horretan borroka eta konkista zehatzetan aurrera egiteak indar korrelazio hobean jartzen gaituela. Borroka hori ezinbestekoa da euskal langileen interesen defentsan eta trantsizio ekosozialean aurrera egiteko. Euskal Herriko ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistemaren berrantolaketa garatzeko modu zehatzak baldintzatuko du egungo eta etorkizuneko klase borroka. Uste dugu sindikalismo soziopolitikoak bere gain hartu behar duela eztabaida.

Hazkunde berdetik eta elkarriketa sozialetik bereiztezina den “Bidezko Trantsizioa” kontzeptua defendatzen duten diskurtso politiko eta sindikalak baztertzen ditugu. Ahulezia asko ditu instituzio marko horrek. Arazoa ez da anbizioa eta borondate politikoa. Ezin gara gobernuek zuzendutako ekimenen menpe egon, tresna mugatuen bidez merkatuan eragiten saiatzen baitira. Esparru hori onartzeak kapitalari mesede egiten dionaren menpe jartzen gaitu, hazkunde, etekin, produktibitate eta inbertsio tasa handien jokalekuan, baina gaur egun ez da horrelakorik gertatzen ari. Gure aldetik, Euskal

Herrian kontrabotere sindikalismoa defendatzen eta praktikatzen dugu, klase boterea areagotu eta eraldaketa produktiboak kapitalari lehiatuko dizkieten gatazkak bultzatzeko.

Gure planteamendua da eraldaketa ekosozialak aurrera egin dezan defendatzea, eta horrekin batera, langile klasearen lan eta bizi baldintzak zein burujabetza eta demokrazia ekonomikoaren aurrerapena defendatzea. Hori ez da lortuko elkarri-zketa sozialaren eta kontzertazioaren eredutik, baizik eta borroka bakoitza eginez eta gatazkak areagotuz. Bide horretan sindikalismo eraginkorra garatzeko, uste dugu enpleguaren defentsaren paradigma aldatu behar dugula, enplegurako eskubidearen aldeko borroka gisa ulertu eta sektore horietako langileentzako bizi baldintza duinak bermatzeko lan egin. Zehazki, horrek esan nahi du, gehienetan, lanpostuak defendatzea lanpostuak suntsitzearen aurka, baina, era berean, ber-me zehatzak dituen trantsizio baten aldeko borroka aktibatzea, jarduera eraldatzeko alternatiba produktiboak proposatzea, sektoreen arteko joan-etorria ahalbidetzen duten prestakuntza espezifikoaren alde borrokatzea, erretiroa aurreratzearen alde borrokatzea, lanaldia murriztea edo diru-sarrerara duinak eta nahikoak bermatzeko akordioak lortzea.

Esparru honetan gure jarduera bideratzeko, zazpi ardatz nagusi nabarmentzen ditugu.

2.1. INDUSTRIA TRANTSIZIOA PLANIFIKATZEA

Aldez aurretik badakigu zein industria sektore eraldatu behar diren sakonago emisioak, energia kontsumoa eta baliabide naturalen kontsumoa murrizteko. Emisioetan ekoizpen prozesu oso intentsiboa duten sektoreak dira, hala nola, elektrizitatea sortzea, petrolioak, zementua eta karea fintzea, siderurgia, beira, zeramika eta papera. Bizi zikloan zehar energia kontsumo eta emisio handia duten produktuak fabrikatzen dituzten sektoreak, hala nola, automozioa, aeronautika eta eraikuntza. Edo trantsizio ekosozialerako beharrezko azpiegitura eman behar duten sektoreak, hala nola, hondakinen kudeaketa, birziklapena edo teknologia berriztagarrien eta bero ponpen fabrikazioa. Eraldaketa horiek guztiek inpaktu sozialalaborela dute, eta trantsizioa planifikatzean datza zeregina, eraldaketok behar diren abiaduran eta norabidean egin daitezzen eta aipatu sektoreetako langileek ondorio kaltegarriak ez pairatzeko.

Plangintzaren bidez bakarrik ziurta dezakegu eraldaketa horiek beharrezko epeetan beteko direla, enpleguan eta lan baldintzetan eragin traumatikorik izan gabe. Plangintza publikorik ezean, merkatuak eta irabazi asmoek gidatuko dute trantsizio eskasa, desordenatua eta bidegabekoa. Plangintza horretan ez dugu ikusle pasiboak izan nahi. Ez dugu onartzen soilik erakunde publikoen eta enpresarien esku uztea gure etorkizuna. Tokiko erakunde publikoek dituzte plangintza lanari ekiteko erantzukizuna eta baliabideak, baina ezingo da egin sindikalismoak prozesuan benetan parte hartzen ez badu. Era berean, enpresen plan estrategikoek ez dute jendarte eta lurralde premiez arduratuko den ikuspegi integralik.

Horregatik, honako plangintza bideak proposatzen ditugu: Lehenik eta behin, industria trantsizioaren plangintza erakunde publikoetatik, sindikatuen parte-hartze erreala eta loteslea bermatuko duten prozesuekin. Bigarrenik, enpresen plan estrategikoak negoziazio kolektiboaren menpe jartzea, enpresa batzordeetan eztabaidatzea eta bozkatzea, eta batzordeek horri buruzko beto ahalmena izatea. Hirugarrenik, sindikatuak sektoreak birmoldatzeko proposamen propioak egin ahal izatea, inplikaturako langileekin eztabaidatzea eta ekintza sindikaleko eta negoziazio kolektiboko esparruetara nahiz esparru instituzionalera eramatea.

2.2. JABETZA PUBLIKOA ETA BALDINTZAZKOTASUNA

Plangintzak kontrol eta erregulazio publiko gogor baten eskutik joan behar du, eraldatzen ari diren sektoreen jabetzan sartzeko. Ikusten ari gara nola diru publiko asko bideratzen zaion enpresa pribatuei trantsizio energetikoaren justifikazioarekin. Diru publikoa esku pribatuetara aldatzea ezin da egin jabetzaren gaineko inolako ondoriorik gabe. Enpresen jabetzan publikoki sartzeari berme bat izan behar da datozen urteetan eraldaketa produktiboak garatzeko moduen gaineko kontrol demokratiko eta soziala areagotzeko. Aldi berean, palanka izan behar du, merkatuak, lehiak eta irabazi asmoek soilik gidatuko ez dituzten eraldaketak eta inbertsioak garatzeko. Baita enpresak lurraldean errota eta deslokalizazio prozesuei ateak ixteko ere.

Ez aktiboak erosteak, ez diru-ekarpenak egiteak, ez lukete oztopo legalik kapital publikoa duen enpresa batentzat. EAEn, SPRIk, Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, «Euskal Autonomia Erkidegoko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa»

du eskura, eta gaur egun, 105 enpresak osatzen dute zorroa. Finantzen Euskal Institutuak "Finkatuz Funtza" kudeatzen du eta 300 milioi euroko zuzkidura lortu zuen 2023an. EAEko enpresa handien kapitalean parte-hartzea du helburu, enpresa horiek errotzen direla bermatzeko eta euskal produkzio sare osoaren gainean trakzio izaera izan dezaten. Badira tresnak, baina arazoa da enpresa pribatuari laguntzeko erabiltzen direla, haien inbertsio arriskuak ekidinez eta haien eraldaketa erabakien gaineko kontrol demokratikorik aplikatu gabe. Era berean, Nafarroan SODENaren funtzioak eta aurrekontu publikoa handitu litezke, titulartasun publikoko industria proiektuak garatzeko gaitasuna izan dezan. Gure planteamendua da diru publikoaren inbertsio horiek ez daitezela ekimen pribatuari laguntzera mugatu, baizik eta zuzenean inplika daitezela jabetza publikoko proiektuen garapenean edo krisian dauden enpresa industrialen erosketa publikoan.

Horrekin batera, ezinbestekotzat jotzen dugu enpresei laguntza publikoak inolako baldintzarik gabe emateari uztea. Onartezina da ekoizpen eraldaketa sustatzeko milioika diru publiko jaso duten enpresek kaleratzeak edo lan baldintzak okerragotzea inolako ondoriorik gabe. Era berean, onartezina da benetako berdintasun-planak ez garatzea, horrela ez dago emakumeen* kontratazioa handitzeko modurik. Industria trantsiziorako laguntza publikoak jasotzeak berekin ekarri behar du hurrengo 10 urteetan itxierarik, kaleratzerik edo lan doikuntzarik ez egiteko legezko betebeharra. Era berean, itxierak, kaleratzeak edo murrizketak egin dituzten enpresak laguntza publikoen lehiaketetatik kanpo geratu behar dira, eta diru laguntzak jaso izan badituzte, itzuli egin behar dituzte.

Bestalde, laguntza publikoak jasotzeko baldintzek eragina izan behar dute enpresa antolaketan. Irabaziak dituzten eta beren I+G edo inbertsio produktiboa finantzatzeko laguntza publikoak jasotzen ari diren enpresek debekatuta izan behar dute akziodunei dibidenduak banatzea. Enpresa pribatuek, beren irabazietatik abiatuta inbertsioak ditzaketenean, ez lituzkete horretara bideratutako diru laguntza publikoak jaso behar, poltsikoak gizentzeko baino ez baitira halakoetan. Era berean, laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresek debekatuta izan behar dute ERTEak erabiltzea beren plantillan. Bestela, diru kutxa publikoak diruz laguntzen ari dira industria enpresa horien lan kostuak eta inbertsio produktiboak.

2.3. DESKARBONIZAZIO PLANEI BURUZKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

Funtsezkotzat jotzen dugu langileek beren sektore ekonomikoen eraldaketetan parte hartzeko mekanismoak lortzea, bi arrazoirengatik: Batetik, trantsizioa gatazkarik gabeko prozesu gisa aurkezteari utzi eta interes kontrajarriak daudela onartzeko. Bestetik, ezinbestekoa delako trantsizio ekologikoaren eragina nozituko duten sektoreetako langileek ekoizpen eraldaketa horien norabideari buruz eztabaidatzeko eta erabakitzeko ahalmena izatea. Jakintza, ezagutza eta gidaritzak ukatzeak ditugun gaitasunak murriztea dakar, eta bizi dugun testuinguruan ezin dugu luxu hori onartu.

Egunez egun ikusten dugu enpresa handiek epe luzerako deskarbonizazio plan korporatibo batzuk definitzen dituztela, eta plan horien betetze mailaren jarraipenik ez dela egiten, baina, aldi berean, enpleguan eragina duten epe laburreko erabakiak hartzen dituztela. Enpresak deskarbonizazio planak egitera behartzen dituzten politika publikoek ahalbidetzen duten dinamika da, eta ezin da horrela izan.

Langileen parte-hartzea onartzen duen industria-deskarbonizazioa bermatzeko, 100 langile baino gehiago dituzten enpresa guztiek deskarbonizazio industrialeko plan bat izatea proposatzen dugu. Plana sindikatuen ordezkartzaren negoziazio kolektiboaren xede izango da eta enpresa batzordean eztabaidatu eta bozkatu beharko da. Deskarbonizazio planek inpaktu soziorabalarari buruzko azterketa bat izan behar dute, helburu lotesleak izan behar dituzte eta enpresa batzordeek beto gaitasuna izan behar dute. Gauza bera aplikatu beharko litzaioke eraldaketa produktiboa dakarren edozein plani, hala nola, automozioaren elektrifikazioari lotutakoei. Deskarbonizazio planei buruzko negoziazio kolektiboa, bereizita eta hitzarmen kolektiboarekin loturarik gabe egin behar da.

2.4. INBERTSIO PRIBATUAREN KONTROLA LEHIATZEA

Plangintza eta jabetza publikoa dira trantsizio modurik egokienean egin dadin bermatzeko proposatzen ditugun tresna eraginkorrenak, baina badakigu hemen eta orain inbertsio produktibo gehiena esku pribatuetan dagoela. Nahiz eta gobernuak ahalegin handiak egiten ari diren inbertsio horren arriskua murrizteko, inbertsioaren asmoa eta kontrola enpresetako

administrazio kontseiluen esku dago oraindik. Organo horiek aukeratzen dute zer norako eman lortutako etekinei, eta lehentasuna akziodunen epe laburreko interesei ematen diete.

Horrek egoera honetara garamatza: eragin ekologiko handia duten eta hainbat hamarkadatan milioi askoko irabaziak izan dituzten enpresek laguntza publikoak eskatzen dizkiete orain gobernuei ekoizpen eraldaketa egiteko. Euren aberastasuna milaka langileren ustiapenean eta naturaren espoliazioan, kutsaduran eta erregai fosil eta materialen erabilera intentsiboan oinarritzen da. Onurak lortzeko krisi ekologikoan sakontzen dute.

Horregatik, ezin gara mugatu laguntza publikoak erabiltzeko modua baldintzatzea. Milioi askoko irabaziak lortzen dituzten industria enpresa handiek beren etekinak erabili behar dituzte deskarbonizazioak eta trantsizio energetikoak eskatzen duten inbertsio produktiborako. Horrek ekintza sindikalerako eta industria enpresen deskarbonizazio planen negoziazio kolektiborako zeregina ezartzen du. Inbertsio produktiboaren eta irabazi pribatuen erabileraren helburua zalantzan jartzeak demokrazia ekonomiko handiagorantz bidea egitea dakar.

2.5. LANALDI MURRIZKETA ETA ENPLEGU DUINA

Trantsizio ekosoziala eta lan baldintzak hobetzea konbinatzeko, beharrezkoa da lanaldia murriztea, lan baldintzak eta soldata murriztu gabe. Lanaldi murrizketak garrantzi berezia hartzen du sektore jakin batzuetan lan karga murriztuko dutela aurreikusten den berrantolaketa produktiboen aurrean: ibilgailu elektrikoarekiko biraketatik hasi eta siderurgiara eta zementu fabriketara arte, horietan automatizazioa sartzen baitute produkzio prozesuaren modernizazioarekin batera. Horrek ezin du itxierarik eta kaleratze traumatikorik ekarri: 30 orduko lan asterantz jo behar dugu, lan karga birbanatzeko enplegua eta zaintza lanak banatzeko eta eraldaketak arintzeko.

Lanaldiaren murrizketak kuantitatiboa izan behar du, baina kualitatiboki ere eragin behar du ordu horiek lantzeko moduan. Beharrezkoa da lanaldi kultura berri bat, hiru txandatan lan egiteko beharra zalantzan jartzen duena eta lan erritmoak moteltzen dituen. Neurri horrek ordaindu gabeko zainketa lanen birbanaketa erraztu behar du, eta istripu tasak murrizten lagunduko luke. Argi dugu helburu hori lortzeak ez duela bidezidorrik onartzen: garaipen hori gatazkan oinarritu behar da.

Bestalde, lan-baldintzak duindu eta enplegua hobetzeko neurriak bultzatu behar ditugu. Sei esparru nabarmendu ditugu. Lehenik eta behin, sektoreko hitzarmen propioen negoziazioa sustatuz, estatu mailako hitzarmenen gainetik lehentasuna izan dezaten, industriako langileen lan-baldintzak hobetzeko. Bigarrenik, emakumeen* aurkako diskriminazioarekin amaitzeko neurriak eta hobekuntzak bultzatuz industrian. Hirugarrenik, lehen enplegurako bekak eta praktiketako kontratuak gehiegiz erabiltzea saihestuz, horiek gazteen enplegua diskriminatu eta prekarizatzen baitute soldata-maila bikoitzen bidez. Laugarrenik, industria-enpresetako lan kategoriak parekatzea sustatuz, kategoria bereko langileen soldata eta lan-baldintzen arteko konbergentziarantz aurrera eginez. Bosgarrenik, pertsona migratzaileen erregulazioa errazteko legezko kontratazioaren aldeko konpromisoarekin, sektoreko funtsezko lanak sostengatzen dituzten kategoria desberdinetako langile gisa. Eta seigarrenik, ETten bidez eta kanporatze-formula bidez zerbitzua ematen ari diren langileak enpresa nagusian subrogatzea bermatuz.

2.6. TRANTSIZIO EKOSOZIAL JUSTUA: BANATU, BIRMOLDATU ETA BIRKUALIFIKATZEA

“Bidezko Trantsizioa”-ren esparru instituzionala enpresa pribatuek inbertsio batzuk egiteko duten borondatera eta, industria jardueraren desegiteak eragindako eskualdeen suspertze ekonomikoa arrakastarik gabe lortzen saiatzen diren laguntza publikoetara murriztuta geratu da. Kontrabotere sindikalismotik ez gara egonean geratzean, kapitalari ongi joango zaionaren esperoan, baizik eta eraldaketa produktibo horiek nola egiten diren eztabaidatzera sartzen gara.

Horregatik, enpleguaren banaketa, birmoldaketa eta birkualifikazioa bermatuko dituen trantsizio ekosozial justu baten aldeko gatazka bultzatzen dugu. Ez dugu defendatzen gaur egun industrian dauden ekoizpen jarduera guztiak bere horretan mantendu behar direnik, baina ez dugu onartuko langileak eta industria trantsizioak eragindako eskualdeak botata uztea.

Hau lortzeko, nahitaez, enpresek produkzio-segmentu berrietan prestakuntza eta birkualifikazioa eskaintzeko erantzukizuna hartu behar dute, eta birkualifikazio hori langileen legezko ordezkariarekin eztabaidatu. Nazkatuta gaude ikustez indus-
tria sektoreko errelebo kontratuak errelebo hartzaileei errelebatzen diren langileei baino gutxiago ordaintzeko erabiltzen direla. Gainera, askotan horrek ez du esan nahi lanpostuari eutsi behar zaionik ere, eta sarri, errelebatua erretiratzen denean desagertu egiten da lanpostua. Produkzio plantilla murrizteak lagundu egiten du industria enpresa horiek laguntza enpresa soil bihurtzen.

Aldi berean, amorrutik ikusten dugu ez dagoela mekanismo eraginkorrik erabaki korporatiboek produkzio eraldaketaren gai-
nean duten inpaktu soziorabazala saihesteko. Egoera horri buelta ematen hasteko, jarduteko hiru bide proposatzen ditugu:

Lehenik eta behin, eskualdeetan Trantsizio Ekosozial Justurako Batzordeak sortzearen alde egiten dugu. 2021ean, LABen Programa Sozioekonomikoan sartu genuen lehen aldiz figura hori, eta ondoren hainbat eremu instituzionaletan aurkeztu dugu. Gure proposamenetan, batzorde horiek hiruko ordezkari-
za izango lukete: sindikala, antolatutako jendarte zibila eta administrazio publikoa. Haien funtzioak honako hauek izango lirateke: (1) lan-sektoreen eraldaketa ekosozialerako propo-
samenak definitzea; (2) lan-gatazka zehatzetan bitartekari-
za egitea; edo (3) esku-hartze publikoa behar duten enpresa edo sektoreentzako planak diseinatzea eta gauzatzea.

Bigarrenik, defendatzen dugu erakunde publikoen erantzukizuna dela trantsizio ekologikoari lotutako Euskal Herriko
industriaren eraldaketek jendartearen eta lanean duten eraginari buruzko diagnostikoak eta azterlanak egitea, eta enplegua birmoldatzea, birkualifikatzea eta banatzea bermatuko duten proposamenak egitea. Beldur gara administrazio batzuek
dagoeneko egiteko konpromisoa hartu duten Bidezko Trantsizioarako Estrategiak oso motz geratuko ote diren, eta eskualde
jakin batzuetan inbertsio pribatua sustatzeko neurri batzuk soilik planteatuko ote dituzten. Horrekin ez da nahikoa. Hor
planifikazioak, jabetza publikoak eta langileen parte hartzeak aipatu estrategiak alferrikakoak ez izateko berme gisa jardun
behar dute. Bidezko Trantsizioarako Estrategiak lantzea defendatuko dugu, eta gure proposamenak helarazteko prozesuan
parte hartuko dugu, baina ez gara enegarren paper bustiarekin konformatuko. Ildo horretan, arreta berezia eskainiko diogu
Nafarroako Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 4/2022 Foru Legean aurreikusitako Bidezko Trantsizioarako
Estrategiari.

Hirugarrenik, jarduera ixtea edo murriztea aurreikusita duten enpresentzat Berrindustrializazio Mahaiak nahitaezkoak izatea
proposatzen dugu. Mahai horietan sindikatuen ordezkariak eta erakunde publikoek parte hartu beharko lukete, eta plantilla
kaleratzeko edo murrizteko erabakia lehengoratzeko eta industria gaitasuna, produkzio sarea eta enplegua mantentzeko
proposamenak bilatzen hasteko helburua izango lukete. Horrela, erabakiari lotutako eragin negatiboa minimizatu beharko
litzateke, eta industria jarduera berrindustrializatzeko akordio bat proposatu.

Prozedura horretan, produkzio eraldaketari buruzko edozein erabakia aldeztu aurretik jakinaraziko litzateke sindikatu-
etako ordezkariak, eta eragina minimizatuko duten alternatibak kontuan hartzeko aukera emango litzateke. Gure apustua da be-
rrindustrializazioa trantsizio ekosozialeko gizarte eta lurralde premiekin lotzea. Industria proiektu alternatibo horiek garatu
ahal izateko, funtsezkotzat jotzen dugu plangintza eta jabetza publikoan aurrera egitea. Bestela, horrelako prozedura batek
itxiera edo kaleratze prozesuak luzatzeko arriskua du, baina amaitzeko, enpresak edozein ekoizpen alternatiba bideraezina
dela esan beharko du. Nafarroako Industria Foru Legearen bigarren zirriborroak Industria Berraktibatze-
ko Mahaiak arautzen ditu, jardueraren %20ko murrizketa eta lanaldi osoan 100 langile gutxienez dituzten kasuetarako. Horrek gatazka antolatze-
ko abiapuntu bat ematen digu.

2.7 ENPLEGUA DESLOKALIZATU ETA SUNTSITZEAREN AURKA

Azkenik, ezinbestekotzat jotzen dugu deslokalizazioen arloko legeria indartzea. Milioika diru publiko enpresa pribatuetara
bideratzen ari diren une honetan, araudi sendoa bat egon behar da dirulaguntza horiek jasotzeko eta gero enplegua suntsitzea
edo okertzea eragozteko. Bai EAEn, bai Nafarroan, deslokalizazioak egiten dituzten enpresak jasotzeko laguntza publikoak
itzultzeraz behartzen dituzten legeak onartu dira: Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen 2023/20 Legea eta Enpresen sus-
traitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriak buruzko 2020/18 Foru Legea.

Hala ere, lege horiek, kasu askotan, ez dira nahikoa laguntza publikoak banatzen diren lurralde eremuetan. Europako edo Estatuko laguntzak jaso dituen enpresa bati ez dio eragiten erregulazio autonomikoak eta enplegua suntsitzeko askatasuna du, inork laguntza hori itzultzeko eskatu gabe. Aldi berean, enpresaren jarduera bertan behera utzi edo nabarmen murrizten denean eta jarduera bera lurraldetik kanpoko beste leku batzuetan garatzen denean soilik aplikatuko da. Horrek kanpoan uzten ditu gure ustez era berean zigortuta egon beharko luketen beste kasu batzuk. Adibidez, egoera horietan, laguntza publikoa kobratzean praxi txarra dagoela frogatu daiteke, enpresaren jabetza aberastuta eta enplegua suntsituta edo okertuta.

Horregatik, beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen dugu legedia indartzea: Lehenik eta behin, legeak jasoko dituen kasuak zabaltzea, laguntzak itzultzera behartzeko. Bigarrenik, laguntza publikoak jaso ondoren enplegua suntsitzen edo okertzen duten enpresak zigortzea. Horrela, enpresa handiek ehun industrialak suntsi dezaten eragotziko da, laguntzak itzularazi baitaitezke. Eta, hirugarrenik, azken aldian lan baldintzek okerrera egin dutela egiaztatzen duten enpresei laguntza publikoak kentzea.

